

2012-2013

**ESKOLAKO AGENDA 21
LAUDIO – ENERGIA**



[LATEORRO]

SARRERA

Jaun-andre agurgarriak,

Foro honetara Laudioko ikasleen izenean gatoz, ikasturte honetan 2012-13 Eskolako Agenda 21ean lortutako emaitzak aurkezteko asmoz.

Herriko 7 ikastetxeetako 3.005 ikaslek **energia** gaia landu dugu ikasturte honen zehar. Diagnostika egin dugu eta lortutako emaitzekin konpromisoak eta hobekuntza proposamenak egin ditugu. Apirilaren 24an ikasleak bildu egin ginen egindako lana bateratzeko eta iritziak, ikuspuntuak, e.a. trukatzeko eta baita, garrantzitsuenak iruditzen zitzaizkigun proposamenak hautatzeko ere. Jarraian garrantzitsuenaren laburpen bat erakusten dizuegu.

Lan hau ez litzateke posible izango gure irakasleen, familien eta udalerriko biztanleen, laguntza eta partaidetzarik gabe. Guzti hauei mila esker eman nahi dizkizuegu.

AURREKO URTEETAKO PROPOSAMENEN JARRAIPENA

Ikasturte honetan aurreko urteetan Udalari egindako proposamenen eta hartutako konpromisoen jarraipena **mugikortasunaren** gaiari buruzkoa izan dira, **2008-2009**ko ikasturtean landutako gaia, hain zuzen ere.

Jarraian **bete den proposamen bakarra** adierazten dugu:

- *“Bidegorria eta espaloia banatzea (Zumalakarregi etorbidea)”*.

Egia bada bete dela, alde batzuetan espaloia oso estua dela adierazi nahi dugu eta bide gorria putzuz beteta eta zulatuta dagoela askotan.

Bete ez diren proposamenak honako hauek dira:

- *“Kale estuetan aparkatzea debekatzea”*.
- *“Auto elektrikoak gure herrian sustatzea”*.
- *“Bizikleta alokatzeko zerbitzua jartzea”*.
- *“Herritarrentzat autoak konpartitzea erraztuko duten bideak eskura jartzea”*.

Azkeneko proposamena **hobetu da baina ez da guztiz bete**:

- *“Hirugarren adineko eta mugikortasun mugatua duten pertsonentzako hobe prestatuta egotea eta araudia betetzea eskatzen dugu: beharrezkoak diren aldapatxoak eraikitzea, toki batzuetako eskailerak kentzea, espaloien altuera txikiagotzea eta zabalera handitzea, e.a.”*

Gauza batzuk egin dira. Adibidez, Zumalakarregi eta Herriko plazan: espaloiak zabalak dira eta zakarrontziak daude.

Beste kasu batzuetan, ez dira egin, adibidez espaloiak estuak izaten jarraitzen dute (esaterako Kale Zaharra), eta zakarrontzi gutxi daude (Lamuza kalean).

Bukatzeko Udalari egin ez diren gauzekin hastea eta aipatutako arazoak konpontzea eskatzen diogu.

Gure esker ona Udalari guri jaramon egiteagatik eta kontuan hartu izanagatik.

Jarraian ikasturte honetan energiaren inguruan jasotako emaitzak aurkeztuzko ditugu.

[LAMUZA]

ENERGIAREN KONTSUMOA ETXEAN ETA UDALERRIAN

Gure etxeak zein udalerria aztertu dugu, ikusteko energiaren kontsumo egokia egiten dugun edo aitzitik barra-barra gastatzen dugun. Baita ere herritarrei galdetu diegu haien ohiturei buruz energia gehiegi kontsumitzen ala ez ikusteko.

Ateratako **ondorio** nagusiak honako hauek izan dira:

Etxean:

- Gure etxeetan energia xahutu arren aurrezten saiatzen gara kontsumo txikiko bonbillak erabiltzen, argiak itzaltzen ez direnean behar, e.a.
- Egun, gure aitona-amonen garaian baino energia gehiago kontsumitzen da tresna elektriko ugari erabiltzen ditugulako.
- Orokorrean, tresna elektriko bat erosteko garaian prezio eta kalitatea hartzen dira kontuan eta neurri txikiagoan eraginkortasun energetikoaren etiketa.

Udalerrian:

- Udalerriaren argiteria egokia da eta farola gehienek txapela dute argia beherantz bideratzeko eta argi-kutsadura ez sortzeko.

- Udalak energia aurrezteko neurriak hartzen ditu, hala nola, argiak itzali eta pizteko ordutegia ezarri eta kontsumo gutxiko bonbillak jartzea.

Energia aurrezteko honako **konpromisoak** hartuko ditugu eta udalerriko biztanleei **proposatu** nahi diegu ere:

- *Bainua hartu beharrean dutxatzea.*
- *Leihoak ez irekitzea berogailua piztuta dagoenean.*
- *Neguan bero garenean berogailua itzaltzea.*
- *Kontsumo urriko bonbillak erabiltzea.*
- *Telebista eta beste tresnak amatatze eta stand by-n ez uztea.*
- *Klasetik ateratzen garenean argia amatatzea.*
- *Energia modu arduratsuan erabiltzearen garrantziaz informatuko ditugu gure familia eta lagunak.*
- *Dutxatzean, xaboia ematerakoan, txorrota itxita izatea.*
- *Ur beroa beharrezkoa denean bakarrik erabiltzea.*
- *Hortzak garbitzean ur-txorrota itxita edukitzea.*
- *Berogailuen tenperatura jaistea.*
- *Termostatoak eta sentsoreak ipintzea kontsumoa kontrolatzeko.*
- *Erosten ditugun produktuak nondik datozen eta nola ekoiztu diren informatzea. Bertokoak badira garraio koste gutxiago izango dute eta azken hauei lehentasuna emango diegu.*
- *Eguzkiaren argitasuna aprobetxatzea.*
- *Argirik behar ez denean itzaltzea. Gelatik ateratzean argia itzaltzea.*
- *Elektrizitateko tresnen erabilera murriztea.*
- *Eraginkortasun energetikoa etiketa kontuan izatea.*
- *Programatzen diren entxufeak erabiltzea.*

[FABIAN LEGORBURU]

Eta Udalarari zera **proposatzen** diogu:

- *Udal instalazioetan: leihoen isolamendua hobetzea, gertutasun-sentsoreak argiak pizteko jartzea.*
- *Eraikin ofizialetan argiak piztuta ez izatea egun osoan.*
- *Eraikin publikoetako berogailuak ondo erabiltzea, askotan bero handia egiten du eraikin horietan eta.*
- *Txapela duten farolak bakarrik ipintzea.*
- *Gabonetako argiak gutxiago erabiltzea.*
- *Denda, taberna e.a.-ean jartzen dituzten kartel luminosoak argirik gabeko beste batzuegandik ordezkatzeta.*
- *Inbertsioak garaiz egitea.*
- *Udalerriko biztanleei gogoratu eta informatu energia aurrezteko eraz.*
- *Kontsumo txikiko bonbillak erabil argi-kaleetan eta publikoak diren eraikuntza eta zerbitzuetan.*
- *Farolak egoera onean mantentzea eta gure eskolako leihoetan gortinak ipintzea (Lateorro).*
- *Argiak argitasunaren arabera piztea (sentsoreak eta tenporizadoreak ipiniz).*
- *Herriko argiztapenaren ordutegia laburtzea: ordu erdi beranduago piztu eta beste ordu erdi lehenago itzaltzea.*

GARRAIOA ETA KUTSADURA

Senitartekoak eta bizilagunak elkarrizketatu ditugu datu batzuk jakitezko: nola mugitzen diren Laudiotik; zein garraio mota erabiltzen duten; era eraginkor batean gidatzen badute, e.a.

Atera ditugun **ondorio** nagusiak hauek dira:

- Atmosfera kutsatzen duen garraio mota gehiegi erabiltzen dugu.
- Askotan pertsona bakarra doa auto batean.
- Laudion trafiko ugari dago.

- Era eraginkor batean gidatzea oso garrantzitsua da: energia aurreztu eta gutxiago kutsatzen delako.
- Askok erosketak etxetik gertu egiten ditugu, energiaren gastua murriztuz. Aldiz, produktuaren garraioak behar duen energia eta eragiten duen kutsadura ez dugu kontuan hartzen.

[LA MILAGROSA]

Garraioarekin lotutako ohiturak hobetzeko ikasleak honakoa egitera **konprometitzen** gara:

- *Izan ahal gara ereduak, oinez, txirrinduz, patinez edo garraio publikoz lekuetara bagoaz.*
- *Hartuko dugu autoa soilik beharrezkoa denean.*
- *Auto pribatua konpartitzea.*
- Garraio publikoak gehiago erabiltzea.
- Ikastolara egiten diren joan-etorriak ahalik eta gehien oinez edo txirrinduz egitea.
- Biodiesel erregaiak erabiltzea.
- Bidegorriak gehiagotan erabili ahal ditugu.
- Gidatzen dugunean arau hauek jarraitzea:
 - Pneumatikoen presioa begiratzea.
 - Iragazkiak garbitzea.
 - Maletategian soilik beharrezkoa eramatea.
 - Martxa luzeekin ibiltzea.
 - Abiadura aproposa mantentzea, eta era konstantean, askotan balaztatu gabe, gidatzea.
 - Aire egokitua ahalik eta gutxien erabiltzea.
 - Abiadura handia denean leihoak ixtea.
 - Itxaroten bagaude motorra gelditzea.
 - Autoaren mantendua eguneratuta izatea.

- Posiblea den neurrian, prezioa, kontsumoa, eta beharrak kontuan hartuta horrelako autoak erabiliko ditugu.

Udalerriko biztanleei gure **konpromisoak** hartzea eskatzen diegu eta gainera:

- Informazioa lortze, jakiteko zelan dagoen egoera, eta pentsatzeko ondo autoa hartu baino lehenago.
- Oinez badoaz bidegorrietan ez sartzea.
- Autoei buruzko informazio lortzea, auto aldatzerakoan erabakirik zuzenena hartzeko.

[CMFP LLODIO / LAUDIO LHUI]

Eta Udalari egiten diogun **proposamena** hauxe da:

- *Garraio publikoa sustatzea diru-laguntza bitartez (prezioak jaitea eta maiztasuna handitu).*
- *Udaltzainak gehiagotan oinez joatea edo bizikletaz.*
- *Bidegorri gehiago egitea (ondo marraztu eta seinalatu), Laudiotik bizikletaz ibili ahal izateko, edota inguruko herrietara txirrinduz joan ahal izateko. Udaltzainek kontrolatu behar dute oinezkoek errespetatzen dituztela.*
- Informazioa eta formazioa ematea.
- Eskape hodian kea emisioak hobeto kontrolatzea.
- Ordu puntetan trafiko kontrolatzea.
- Laudioko motor kirolak edo erakusketak ez sustatzea.
- Autobus bat jartzea Laudioko auzoak erdigunearekin hobeto komunikatzeko.
- Ikastoletarako autobusak dohainik izatea.
- Txirrinduaren erabilpena sustatzea.
- Bizikleta mailegu zerbitzua jartzea.
- Kotxeak gutxiago erabiltzea.
- Garraio publikoa elektrikoak izatea.
- Kotxerik gabeko eguna jartzea.
- Udaleko autoak erabiltzerakoan erregaiak aurrezteko logistika bat prestatzea.

- Autoak konpartitzeko nonbait izena eman ahal izatea.
- Gizartea kontzientziaztea eskolara oinez etortzeko eta ez kotxez.
- Informazioa eta formazioa emateko.
- Aipatu ditugun gauza guztiak egiteko.
- Horrelako autoei buruzko informazio gehiago emateko. (Erakusketaren bat antolatzea adibidez).
- Udaleko autoak aldatzeko unean elektrikoak erostea.
- Laudioko jendeak auto elektrikoak erosteko diru-laguntza ematea, edo zirkulazio zergak txikiagoak izatea.
- Elektrolinerak jartzea.

ENERGIA BERRIZTAGARRIA ETA BERRIZTAEZINA

Gure herrian erabiltzen diren energia-iturriak aztertu ditugu, berriztagarriak eta berriztaezinak, eta ateratako **ondorio** nagusiak hauek dira:

- Energia berriztagarriak berriztaezinak baino hobeak dira, izan ere ez dira agortzen eta atmosfera ez dute kutsatzen.
- Etorkizunean elektrizitatea energia-iturri berriztagarrietatik lortzea gustatuko litzaiguke
- Egun, gasa eta petrolioa dira gure etxeetan gehien erabiltzen ditugun energia iturriak. Aitzinean, berriz, ikatza zen.
- Udal eraikinetan neurri batzuk jarraitzen dira energia aurrezteko eta eraginkorragoak izateko (batzuetan eguzki-xaflak, argi naturala aprobetxatzea, hegoalderantz orientazioa, berogailua 21 gradutan, e.a.). Hala ere, azken urteetan kontsumo energetikoa igo egin da.

[IES LAUDIO BHI]

Energia berriztagarrien alde egiteko gure **konpromisoak** honako hauek dira:

- *Energiaren kontsumo arduratsua egitea: aurreztu eta ez kontsumitu behar duguna baino gehiago.*
- *Energia berriztagarriak egungo kontsumo maila altuak ordezkatzeko gai ez direnez, gure kontsumoa murriztu beharraz jabetzea eta zabaltzea.*
- Etxeetan eguzki-panelak jartzea.

- Energia berriztagarriez hobeto informatzea (etxe bat erosterakoan, eraikitzerakoan, e.a.).
- Energia berriztagarriez informazioa jasotzea, bai abantailak eta baita desabantailak (*adibidez, haize errotek Naturgune babestuetan*).
- Energia berriztagarriak ahal den neurrian erabiltzea.

Eta udalerriko biztanleei zera **proposatzen** diegu:

- Ahal den neurrian energia berriztagarriak erabiltzea.
- Energia berriztagarrien kontsumoa bultzatzea.

Eta Udalari egiten diogun **proposamena** hauxe da:

- *Eraikin publikoetan eguzki-panel gehiago jartzea.*
- *Eraikin berrietan araudiak dioen jarri behar diren energia berriztagarrien sistemen kopurua errespetatzen dela ziurtatzeko.*
- Energia berriztagarrien erabilpenari buruzko kanpainak egitea horren bultzada lortzeko asmoz.
- Energia berriztagarrien erabilpena bultzatzea (haize-errotak, eguzki plakak, e.a.), eta energia nuklearra aldiz, ez erabiltzea.
- Mendietan errotak jartzea.
- Kaleetan eguzki-farolak jartzea.
- Herriko argiak pizteko energia berriztagarriak erabili.
- Jendearentzako energia berriztagarrien inguruan ikastaro informatiboak egitea.
- Herri mailan ere kontsumitzen den energia berriztagarria izan dadila.
- Faroletan eta semaforoetan eguzki-plakak.
- Betiko energiaren enpresa banatzaileekin lan egin ordez, baloratzea posiblea den lan egitea gaur egun irten ari diren energi berriztagarriekin lan egiten duten kooperatiba berriekin (Goienar).

KABLE ETA DORRE ELEKTRIKOAK

Gure etxeetaraino energia nola iristen den arakatu dugu eta kable eta dorre elektrikoen bidez ailegatzeko dela ikusi dugu. Udalerritik ibili gara eta arreta jarri dugu hauek aurkitzeko eta zenbat ikusten ditugun zenbatzeko.

Atera ditugun **ondorio** nagusiak hauek dira:

- Elektrizitate dorre eta kable gehiegi daude guregandik oso gertu.
- Kable asko zuhaitzez inguratuta daude energia larregi kontsumitzen dugulako.

Gure **konpromisoa** gaia honi buruz hurrengoa da:

- *Zerrendatzea non kokatuta dauden eta udalari helaraztea zerrenda hau.*

Eta gure **proposamenak** Udalarentzat hauek dira:

- Dorre eta kable hauek ingurunean eta osasunean izan ditzakeen kalteak hobetzeko, lurperatzea edota udalerritik ahal den urrunen jartzea.

[LAUDIO IKASTOLA]

ZABORRA ETA BIRZIKLAPENA

Zaborra eta birziklapena arduratzen gaituen beste gaia ere bada. Energia aztertzerakoan birziklapenarekin lotuta dagoela konturatu gara. Alde batetik, zaborretik energia atera dezakegu (biogasa); bestalde ahal dugun guztia birziklatzen badugu energia aurreztu dezakegu (petrolio asko behar da produktu ugari egiteko, esaterako).

Ondorioak hauek izan dira:

- Hondakin gehiegi sortzen ditugu.
- Udalerriko biztanle guztiek ez dute birziklatzen.

Horregatik hondakin gutxiago sortzeko honako **konpromisoa** hartuko dugu eta Udalerriko biztanleei **proposatu** nahi diegu ere:

- *Gehiago birziklatzea.*
- *Berrerabiltzea ahal duguna. Berrerabili gure arropa eta tresnak, nahiz eta zaharkituak izan eta kontsumoa murriztu (konpondu, elkartrukatu, eman beharra dutenei...).*

- Klaseko koadernoak eta papera hobeto aprobetxatzea.
- Gauzak behar beharrezkoak direnean bakarrik erostea.
- *Hondakin elektriko eta elektronikoen hondakinak ondo kudeatzea, elementu oso kutsakorrak baitituzte.*

Proposamen hauei lotuta Udalari honakoa **planteatzen** diogu:

- *Erosketa publiko berdearen irizpideak kontuan izatea, energia eraginkortasuna, garraio distantziak, ingurumen ziurtagiriak lehenetsi...*
- *Ibaia maizago garbitzea*
- Denetarikoz birziklatzeko ontziak jartzea kale gehiagoetan.
- Paperontzi gehiago jartzea.
- Txorrotako ura berrabiltzea.

Alkatearen galderak ikasleei:

- Zer egin dezakezue zuen etxebizitzetan energia aurrezteko?
- Prest egongo al zinatekete energia gutxiago kontsumitzen duen bizimodua izatea?
- Zein iritzi duzue herriko argiteriari buruz?
- Zergatik uste duzue orain aitzinean baino energia gehiago kontsumitzen dela?
- Zein etxetresna elektriko kontsumitzen du energia gehien zuen ustez?
- Nola joaten zarete ikastetxera?
- Bizikleta erabiltzen al duzu?
- Autobusa erabiltzen duzue? Nora joateko?
- Auto elektrikoek alde zaudete? Zergatik?
- Zein energia-iturriak ezagutzen dituzue?
- Zein uste duzue dela energia-iturri garbiena? Zergatik?
- Zuen iritziz energia berriztaezinak txarrak al dira? Zergatik?
- Ba al dakizu Laudion dorre elektrikorik al dauden? Non ikusi dituzue?

- Zeintzuk dira dorre hauen alde txarrak?
- Zuen etxebizitzetan hondakinak bereizten al dituzue? Zeintzuk?
- Laudioko Garbigunean egon al zarete? Zer eraman duzue?

Hau da Laudioko haur eta gazteok Agenda 21ari egiten diogun ekarpena.

Eskerrak ematen dizkiogu Udalari gu entzun eta kontuan hartzeagatik. Espero dugu energiaren alde egin dugun lan eta esfortzu honek harrera ona izatea, eta Laudio "jasangarriago" bat lortzeko pauso txikiak modu bateratu eta parte-hartzaile batean eman ahal izatea.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta hurrengora arte.